

21. zk.

LABURPENA

Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2018



www.ararteko.eus

ararteko

Herriaren Defendatzailea · Defensoría del Pueblo



Lan hau Creative Commons
Reconocimiento 4.0 Internacional (CC BY 4.0) lizentziapean dago
Lizentziaren kopia bat ikusteko **sartu hemen**

ARARTEKO

Diseinua, maketazioa eta imprimaketa:
Eps-Comalpa-Irudi, UTE
ISSN-e 2255-4912

www.ararteko.eus

AURKIBIDEA

00.	Aurkezpena	2
01.	Arartekoaren jarduera zenbakitan	4
02.	Jarduerak	6
03.	Txosten berezia	16
04.	Jardunaldiak	18
05.	Haur eta nerabeentzako bulegoa	22
06.	Beste jarduera batzuk	24
	Informazio interesgarria	30



“Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, mediku sorospena eta gizarte-zerbitzuak”

(Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 25. artikulua)

Urteko txostenean biltzen dira 2018an egindako jarduerak, eta Arartekoak nagusiki zer gai aztertu dituen jakiteko aukera ematen du.

Kexak eta kontsultak izapidetzen egin dugu ahalegirik handiena, baina azpimarragarria da, orobat, era askotako jarduerak burutu ditugula kalteberatasun egoeran edo egoteko arriskuan dauden taldeekin. Era berean, gure lanaren zati garrantzitsu bat hartu dute gizarte-erakundeekin eta herri-administrazioetako arduradunekin egindako bilerek, mintegiak antolatu eta horietan parte hartzeak; eta Europa eta mundu mailan giza eskubideak sustatzeko egin diren ekintzek.

Zenbakiei begira, Arartekoaren jarduerak goranzko joerari eutsi dio 2018an, izan ere, **14.549** jarduera burutu dira, iaz baino %8 gehiago.

Jarduera bizia nabari da, batez ere, gizarte-bazterketaren kontra borrokatzeko tresnekin zerikusia duten arloetan.

Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostenean egiaztatu da pobreak eta berdintasunik ezak oso modu desberdinean eragin diela gizarte-taldeei. Testuinguru horretan, gero eta txirotasun handiagoa jasateko arriskuan egon dira beraien kargura seme-alabak dituzten familiak.

2018an oso garrantzitsua izan da **ofiziozko jarduerak** hastea; guztira 61 espediente hasi dira, horietako batzuk gizartean eragin handia izan dutenak.

Erakunde honen ezaugarrietako bat denez gero, azpimarratzekoa da **zeharkako ikuspegitik** helden diogu bereizkeria, bazterketa edo berdintasunik eza eragoztearen alde egiten dugun lanari. Horretarako, herri-administrazioei zenbait ekimen proposatzen dizkiegu azterturiko kasu bakoitzaren ikuspuntutik, baina, aldi berean, ikuspegi oso eta alor anitzeko batetik begiratu.

Eskubideak bermatzeko ikuspuntu orokor hori oinarritzat hartuta erabaki genuen **Euskal Herria energia-eredu iraunkor batera igarotzea** izenburuko txosten berezia prestatzea. Arartekoak, bere ekarpen eta proposamenekin, oinarri batzuk mahaigaineratu nahi izan ditu honako gai honetaz hausnartzeko: Euskadin orain daukagun energia-eredua eta karbono gutxiko eredu iraunkor batera igarotzeko jarraibide gomendagarriak. Euskadin gizarte-ituna lortu behar dela ere nabarmendu du.

Europako alderdia oinarri sendoa da erakunde honen jardueran. Horren erakusgarri, baterako ekimenetan parte hartu dugu giza eskubideak defendatzen diharduten nazioarteko beste defentsa-erakunde eta organizazio batzuekin.

Jarduera horien artean azpimarratzekoa da **Ombudsmanaren Nazioarteko Institutuaren (ONI)** mintegia Gasteizen antolatu zela edo **Haurren Defentsa-erakundearen Europako Sarearekin (ENOC)** edo errefuxiatuen eskubideekin lotutako jardueretan parte hartu dugula.

Bereziki nabarmendu nahi dut **giza eskubideetan oinarritutako kultura indartu behar dela**, herritarrek nahiz herri-administrazioek eskubide horiek betetzeko lan egin dezaten, egunetik egunera pertsona guztien eskubideak errespetatzeko balioak eraiki eta berreraiki daitezten. Horretarako, kendu egin behar dira askotan giza eskubideak erabat baliatzea eragozten duten oztopoak, mugak eta inertziak. Aurten beharrezkoa iruditzen zait azpimarratzea oraindik ez dagoela berdintasunik gizonen eta emakumeen artean; neska-mutikoen eskubideak bermatu behar direla, batez ere sexu-abusuak gerta litezkeenean; eta gizarte-bazterketaren kontrako tresnak ziurtatu eta indartu behar direla.

Ez dugu ahaztu behar Martin Luther King-ek esandakoa, alegia, edonongo justiziarik ezak arriskuan jartzen duela toki orotako justizia.

Manuel Lezertua Rodríguez
Arartekoa

ARARTEKO ERAKUNDEAREN BULEGOAREN JARDUERA, ZENBAKĪTAN

2018an, **14.549 jarduketa** egin dira, osotara. Horietatik, **9.205 kexei eta kontsultei** dagozkie, eta **61, ofiziozko espedientei**. Beraz, Arartekoren jarduerak, iaz, %8 egin zuen gora.

Informazio horretatik ondoriozta daiteke, 2010. urtearekin alderatuz gero —une horretan krisiaren ondorioz larrienak bistaritzen hasi ziren—, herritaren kexak arrazoi askoren ondotik ugaritu egin direla (%45) baina, batez ere, izaera ekonomikoko gizarte prestazioei buruzko kexen zama handiaren ondotik.

Zuzeneko arretako bulegoetan, guztira, **11.542 zerbitzu** eman dira: horietatik, ia 5.000 telefono bidezko zerbitzuak izan dira, eta 6.592 lagunek hiru bulegoetako batera jo dute, informazio eta aholku eske.


78 **bilera** egin ditugu gizarte erakundeekin, eta 86, zenbait administrazioekin. Halaber, 10 **ikuskapen bisita** egin ditugu.

2018an, **1.658 kexa-espeditente ebatzi dira**, eta **1.113 ebazpen** eman dira. Gainerako kasuetan, erabaki da kexak behingoan ez onartzea, bikoiztuta zeudelako, beste herriaren defendatzaile batzuei aurkeztu zitzaizkien-eta; ebazpen judizialaren zain zeudelako edo epai irmoa zutelako; auzibidera jo zelako, eta abar. Espediente horiek aztertuta, ikusi dugu horien **%53n** ukitutako administrazioak **oker jardun zuela**; ehuneko hori aurreko urtekoa (%48) baino pixka bat handiagoa da. Aldiz, ez da okerreko jardunik hauteman aztertutako espedienteen %47n.

Arartekoari 2018an egindako kexak eta kontsultak



Arartekoaren jarduera guztiak 2018an



Guztira
14.549

Kasuen %84n, ukitutako administrazioak erreklamazioa eragin zuen jarduna aldatu eta zuzendu egin du. Kasu gehienetan, Arartekoak ez du gomendio formala egin beharrik izan.

Kexa-prozeduren **batez besteko iraupena**, 2018an, **57 egun** izan da.

Kexek hizpide duten arloaren arabera, hauteman dugu **gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzeko bitartekoei** loturiko erreklamazioek (**713**) behera egin dutela (2017an, 829 izan ziren). Horietako gehien-gehienek **Lanbideren** funtzionamendu txarrarekin zerikusia duten arazoak dituzte hizpide, baita erakunde horrek, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria kudeatzeko orduan, egindako jarduerak ere.


Hona hemen jarduera handiko beste arlo batzuk: hezkuntza, osasuna, erregimen juridikoa, herri-administrazioen ondasun eta zerbitzuak eta etxebizitza. Izan ere, izapidetutako kexa-**espeditenteen %55** baino gehiago **eskubide sozialen** ingurukoak dira.

Halaber, kexetako asko **arreta publikoko kolektibo**ei buruzkoak dira. Espediente horietako askok (gizarteratze arlokoak barne) pertsona guztien **berdintasun erreala eta eraginkorra** bermatzeko **politika publikoekin** zerikusia dute, eta horien helburua da emakumeek, adinekoek, haur eta nerabeek, ezgaitasunen bat duten pertsonak, LGTB kolektiboak, immigranteek, ijitoek eta abarrek eskubide hori baliatzeko dituzten eragozpenak desagerraraztea.

Administrazio bakoitzari eragiten dioten espedienteen proportzioari dagokionez, aurreko urteetan bezala, Eusko Jaurlaritza izan da idatzizko erreklamazio gehien jaso dituen erakundea (%60 baino gehiago), eta euskal udalen jarduerari buruzko kexak pixka bat hazi dira (%27).

Nolanahi ere, espedienteetan ukitutako administrazioen jardunak ikertzeak ez du esan nahi jarduera okerrik egin dutenik, baizik eta erreklamazioak beren jardueraren bat hizpide izan duela.

Bideratutako espedienteen banaketa, eragindako administrazioen arabera



● Administrazioa	61,09
● Eusko Jaurlaritza	26,90
● Tokiko administrazioa	10,22
● Erakunde publikoak	1,13
● Justizia	0,34
● Estatuko administrazioa	0,25
● Eusko Legebiltzarra	0,06

ASEBETETZE MAILA

Duela zenbait urte herritarrengana hurbiltzeko bideari ekin genion, Arartekoaren esku-hartzea eskatu duten pertsonen iritzia ezagutzeko eta eskaintzen dugun zerbitzua hobetzen saiatzeko. Horregatik, kexa-espediente baten izapideak amaitzen ditugunean, kexagileari galdera sorta bidali ohi zaio, nahi izanez gero eta izena ipini gabe, galdera batzuei erantzuteko eskatuz. Horrela, emandako zerbitzuaren gainean egiten duen balorazioaren berri izan dezakegu.

Emaitzak baloratzeko orduan, kontuan izan behar dugu, 2018an izapidetzen amaitu dugun kexa guztietatik, soilik kasuen %53n jo dela ukitutako administrazioak oker jardun duela.

Arartekotik jasotako informazioa nola baloratuko luketen galdetu ondoren (betiere, erreklamazioaren

izapideak amaitu eta gero), erreklamazioaren bat aurkeztu duten herritarren **%76k** uste du **“jasotako informazioa ona edo oso ona”** izan dela. Gainera, %83k uste du jasotako arreta ona edo oso ona izan dela.


Arartekoaren esku-hartzeari dagokionez (eskuragarritasuna, erakutsitako interesa, egindako izapideak), ia %77k uste du oso positiboa edo positiboa izan dela.

%83k baino gehiagok, administrazioarekin arazorik izatekotan, **Arartekoarengana jotzea gomendatuko luke**, eta ia %70ek uste du Arartekoak gizar-tearen eta administrazioaren aurrean duen irudia eta sinesgarritasuna onak edo oso onak direla.

Emaitza hauekin —aurreko urteetako antzekoak dira—, ondoriozta dezakegu Arartekoaren zuzeneko esku-hartzea (alegia, erakunde honen jardueraren eta baliabide pertsonalen mende dagoena) dakarten arloei buruzko iritzia aztertzen direnean, **oso positiboa dela egindako lanaren inguruko balorazioa**.

Arartekoaren erabakietatik edo jardunetik at dauden alderdien inguruan galdetzen denean, berriz, bestelakoa da emaitza. Izan ere, horiek, hein handi batean, zerkusia dute administrazioa laguntzeko prest egotearekin edo ez, horrek baldintzatzen baitu prozesuaren iraupena (%52k uste du denbora luzea edo oso luzea igaro dela).

Nolakoa iruditu zaizu Arartekoak bidalitako informazioa?



BARAKALDOKO UDALAK ONARTU EGIN DU TRAFIKO ISUN BAT EZEZTATZEKO ARARTEKOAREN GOMENDIOA




Pertsona batek Arartekora jo zuen, izan ere, bere iritziak, ustezko arau-hauste baten kokalekua zehazteko orduan bi kale paralelo aipatu zirenez gero, ezin izan zuen jakin arau-haustea zehazki non gertatu zen, eta, orduan, babesik gabe geratu zen. Barakaldoko Udalak zigor-prozeduran ez zuen argitu aipatutako bi kale haiek zeinetan gertatu zen arau-haustea, nahiz eta interesdunak alegazioak egin. Kexa izapidetzean ere ez zuen kontu hori argitu. Arartekoaren aburuz, arau-haustearen kokalekua bateraezinak ziren bi erreferentziaren bidez identifikatu zenez gero, ezin zitekeen ziur zehaztu bi kaleetatik zeinetan gertatu zen arau-haustea.

Salatuak salaketaren berri jasotzeko duen eskubidearen baitan sartzen da arau-haustearen kokalekua ziur zehaztea. Gure ustez, eskubide hori urratu egin zen eta, beraz, bertan behera utzi behar zen ezarritako isuna. Barakaldoko Udalak onartu egin du Arartekoaren gomendioa.

KARRANTZA HARANAKO UDALAK IRADOKIZUN BAT ONARTU DU, DATU PERTSONALAK DITUZTEN ESPEDIENTE ADMINISTRATIBOETARAKO SARBIDEA EMAN BAINO LEHEN, KASU BAKOITZA AZTERTU ETA HAZTATU DADIN

2017an Arartekoak bideratzeko onartu zuen kexa batean, esku hartzeko galdegin zioten, agian datu pertsonalak babesteko eskubidea urratu zelako. Izan ere, Karrantzako Udalak kexagilearen datu pertsonalak laga zizkien salatutako pertsonen eta Bake Epaitegiari.

Kasu zehatz horretan, Arartekoak ondorioztatu du espediente administratibo horretarako sarbidea inolako arazorik gabe eman zitekeela salatzailearen datu pertsonalak kenduta edo hari hartarako baimena eskatuta.





BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK INFORMAZIO HOBEA EMANGO DU MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO EGUNEKO ZENTROETAKO ZERBITZUETAN BAJA EMATEAZ

Horrela, Aldundiak Arartekoaren iradokizuna onartu du, Bizkaiko eguneko zentro batzuetako erabiltzaileen familien kexa batzuk jaso ondoren, izan ere, erabiltzaile haiei zentro haietan baja eman zitzaien, "zentroko jardueretan parte hartzen ez zutela" argudiatuz.

Kasurik gehientsuenetan, pertsona horiek narriadura kognitibo larria dute eta ezintasun horrexegatik ez zuten parte hartzen. Hala ere, familiek ziotenez, zentro horietan bazekiten haien partaidetza-mailaren berri plaza bat eman zitzaienean, eta ez zieten bestelako azalpenik eman hartutako erabakiaren gainean. Kexa horiek epe laburrean iritsi zirenez gero, Arartekoan galdera bat sortu zen: Bizkaiko eguneko zentroetan ba al dago irizpide nagusirik edo horien egoera beraztertzeko planik?

Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduera plan nagusi baten ondoriozkoa izan ala ez, beste bi gai hauetara zabaldu

zen gure kezka: ea pertsona horiei zer hautabide ematen zitzaien eta ea zer informazio eskaintzen ari zitzaien beraiei eta beren familiei.

Gai horien berri eskatu genion Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailari, eta, informazioa aztertu ostean, hauxe iradoki genion: zerbitzuetan baja emateko orduan, arreta berezia jar zezala erabiltzaileei eta beren familiei informatzeko eta parte hartzeko prozesuetan. Era berean, administrazio ebazpenak eta jakinarazpenak hobetu zitzan proposatu genion, ekintzaren arrazoiak eta alegazioak ezesteko arrazoiak edukia aberastuz, egokien iruditzen zitzaien moduan.

Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi digu gure iradokizunak onartu dituela eta hausnarketa-prozesu bat hasiko duela, arlo horretan etorkizunean egiten duen jarduera ebazpenean adierazi genionari egokitzeko.



EUSKO JAURLARITZAREN SEGURTASUN SAILAK NEURRIAK HARTUKO DITU HERRITARREI EAE-KO BI HIZKUNTZA OFIZIALETAN KASU EGIN DIEZAIETEN BERMATZEKO

Horixe gomendatu zion Arartekoak, Ertzaintzarekin euskaraz komunikatzerik izan ez zuen pertsona baten kexa jaso ondoren

Herritar batek kexa egin zion Arartekoari. Adierazi zue-
nez, ez ziren errespetatu bere hizkuntza-eskubideak,
bada, Gasteizko ertzain-etxe nagusira telefonoz deitu
zuenean, ez zioten euskaraz kasu egin eta deia ez
zitzaion pasatu ertzain euskaldunen bati. Herritarra
kexu zen gertakari horrengatik. Haren esanean, ez
zen bete erakunde honek zazpi urte lehenago egin
zuen gomendio bat, berak ertzain-etxe berberaz egin
zuen kexa zela eta. Orduz geroztik, hainbat aldiz deitu
omen zuen ertzain-etxe horretara, eta sekula ez omen
zioten euskaraz hitz egin, ezta euskaraz aritu zitekeen
norbaitekin harremanetan jarri ere. Beti esan omen
zioten une hartan ez zegoela ertzain elebidunik kasu
egiteko moduan.

Segurtasun Sailak gai horretaz emandako informa-
zioaren arabera, Ertzaintzak baditu ele bietan artatze-
ko langileak, baina, zertzelada batzuegatik, inork ez
zuen kexagilea artatzerik izan. Gainera, kasu horretan
informazioa bizkor biltzea lehenetsi zen, kontuan izan-
da genero-indarkeriazko kasu bat izan zitekeela.

Gure iritziz, administrazioak ez du zehaztu zer zertze-
ladak eragotzi zuten kexagilearen deia bera artatu
zuen txandako langile elebidunei pasatzea, eta zertze-
lada horiek salbuespenezkoak zirenik ere ez du ale-
gatu. Horrengatik, Euskararen Erabilera Arauzkotzeko
Legear ezarritakoaren arabera, Arartekoaren ustez,
Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak ziurtatu egin
behar du Ertzaintzako langileek behar bezalako infor-
mazioa daukatela herritarren hizkuntza-eskubideen
gainean, eta hori aintzat hartuta jardun behar du. Bere
euskalduntze-programarekin batera, antolatze-ko iriz-
pideak jarri behar ditu zerbitzuetan langile elebidunak
egongo direla bermatzeko, eta langile horiek faktore
objektibo eta ebaluagarrien arabera –adibidez, inguru
soziolinguistikoa– banatu. Segurtasun Sailak Ararte-
koaren gomendioa onartu zuen.

DIMAKO UDALAK HITZEMAN DU HIZKUNTZA-IRIZPIDE BATZUK ONARTUKO DITUELA HERRITARREKIN HARREMANETAN EGOTEKO, ARARTEKOAK GOMENDATU ZION MODUAN


Dimako herritar batek Arartekora jo zuen. Izan ere, ez
zegoen ados udalak berari nahiz herritar guztiei oroko-
rean bidalitako zenbait jakinarazpen euskara hutsean
argitaratu izanarekin. Kexagilea ez zen jakinarazpen
horietan euskara erabiltzeagatik kexatzen, baizik eta,
jakinarazpen horien gaztelaniazko bertsioa argitara-
tzen ez denez, hizkuntza ofizial horretan bakarrik hitz
egiten dutenek ezin dutelako jakin zer dioten idatziek,
jakinarazpen horiek argitaratzen diren bakoitzean udal
bulegoetan itzultzeko eskatu ezean. Herritarrak esan
zigunez, behin baino gehiagotan kexatu zitzaion uda-
lari horrengatik, eta hark bidaltzen zizkion jakinarazpen
pertsonal batzuk elebitan idatzita egotea lortu zuen.
Nolanahi ere, ez zela beti horrela gertatzen ziurtatu
zuen, eta adibide gisa, zirkulazioaren gaineko zerga
aipatzen zuen; antza denez, euskara hutsean bidali
zioten.

Dena den, kexagileak azpimarratu zuen udalak he-
rritar guztientzat bidalitako jakinarazpenak euskara
hutsean argitaratzen jarraitzen zuela, eta udalari ho-
rretaz kexatzen zitzaion bakoitzean irtenbide bakarra
eskaintzen ziotela: bulegoetara joatea bertan itzul
ziezazkioten.

Kasua behar bezala aztertu ondoren, hizkuntza-iriz-
pide batzuk gomendatu zizkion Arartekoak Dimako
Udalari herritarrekin harremanetan jartzeko garaian:

- Banakako harremanetarako, euskara erabiltze-
ko lehentasuna alde batera utzi gabe, harreman
horietarako pertsonak argi eta garbi hautatutako
hizkuntza ofiziala baliatu behar da.
- Udalaren babesen bat duten aldizkako argitalpe-
nak euskaraz soilik argitaratuta egoteak ez du, be-
rez, herritarren eskubideen kontra egiten.
- Herritar guztiek ezagutzeko udal-bandoak edo
deialdiak Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak
diren bi hizkuntzetan argitaratu beharko dira.

Udalak baiezkoa eman zion Arartekoaren gomen-
dioari, eta erakunde honek oso ontzat jo du udalaren
ahalegina.



OSTALARITZA ESTABLEZIMENDUETAN MUSIKA KONTZERTU TXIKIAK EGIN AHAL IZATEKO BALDINTZAK ARAUTUKO DITU BERMEOKO UDALAK



Horrela, udalak Arartekoaren iradokizun bat onartu du, Euskal Herriko Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legean ezarritako baldintzen garapena arautu dezan.

Pertsona batek kexa egin zion Arartekoari Bermeoko ostalaritza establezimenduen sustatzaile batzuen izenean, izan ere, bere ustez, udalak behin eta berriz urratzen du zenbait jolas jarduera (antzerki lanak edo kontzertu txikiak) noizbehinka egiteko arauen ezarpena.

Haren esanean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko otsailean akordio bat onartu ondoren, Bermeoko Udalak hainbat jarduera egitea baimentzen du, sustatzaileei berariazko baimenik eskatu gabe edo horrelako jarduerak egiten dituzten lokalei aurrez eskatzen zaizkien lizentzietan horretarako babesik izan gabe. Gainera, establezimendu horietako askok ez omen dituzte betetzen beharrezkoak diren gutxienezko baldintzak beren jarduera modu egokian gauzatzeko eta besteri eragozpenik ez sortzeko.

Beraz, haren iritzian, Bermeoko Udala legez kanpo baimentzen ari da noizbehinkako jarduera horiek egitea. Era berean, adierazi zuen ez zegoela konforme akordio hori onartzeko egin ziren udal izapideekin.

Azkenik, nabarmendu zuen udaletxean izandako azken bileran agerian jarri zela udalak oso gutxi ikuskatzen dituela herri horretako kirol portuan egiten diren jarduera eta ikuskizun publiko ugariak.

Kexa hori bideratzeko onartu ostean, Arartekoak zenbait gestio egin zituen Bermeoko Udalarekin eta Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren Jolas eta Ikuskizunen Zuzendaritzarekin, jakin nahi baitzuen administrazio eskudunek zer izapide egin behar dituzten jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak aldizka egitea baimentzeko.

Informazio guztia aztertu eta gero, Arartekoak Bermeoko Udalari iradoki zion arautu dezala Euskal Herriko Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legean xedatutako baldintzen garapena, jarduera nagusiaren osagarri eta gehigarri gisa, kultura- eta gizarte-ekitaldiak, antzerki lanak edo musika kontzertu txikiak egin daitezzen baimentzeko.



ARARTEKOAK ARRASATEKO UDALARI GOMENDATU DIO EGIAZTA DEZALA EA URRATZEN ARI DEN ESPALOIETAN ETA EZINDUENTZAT GORDETAKO EREMUE TAN APARKATZEKO DEBEKUA

Udalak bidalitako informazioa aztertu ostean, gure gomendioa ez onartutzat jo dugu, ez baitu inolako berririk eman azaldutako gaiaren bilakaeraz.

Arrasateko Aragoa kalean bizi den lagun batek kexa egin zion Arartekoari, Uribe auzoa bere ustez zer egoeratan zegoen azaltzeko, unibertsitatearen eremuan eta eremu horren aldameneko auzoetan TAO ezartzearen ondorioz.

Kexaren arabera, eremu horietan TAO ezartzearen ondorioz, unibertsitatera edo toki horretako tabernen aldera doazenek Uribe auzoa erabiltzen dute aparkatzeko. Auzo horretan lehendik ere aparkaleku gutxi zeuden, baina orain ez dago behar bezainbat leku aparkatzeko eskaera berri horri erantzuteko.

Era berean, adierazi zuen auzo horretako aparkalekuen eta eskaera berriaren arteko desoreka aparkamendu-arazo larriak sortzen ari zela auzo horretan bizi direnei, eta eremu horretan behin eta berriz urratzen zela trafiko araudia, izan ere, espaloietan eta ezinduentzat gordetako aparkalekuetan aparkatzen omen da.

Adierazi zigunez, etxejabeen elkarte batek idazki bat egin zion udalari, TAO kale horretara ere heda zezan eskatzeko, baina arazo horrekin urtebete igaro arren, konpondu ez, baizik eta larriagotu egin da. Etxejabeek berriz eskatu ondoren, udalak jakinarazi zien gai hori udalerraren Mugikortasun Iraunkorreko Planean aztertuko zela.

Informazio guztia aztertu eta gero, Arartekoaren ustez, udalak behin-behineko neurriak hartzea bideragarria den aztertu behar du, harik eta Mugikortasun Iraunkorreko Planean behin betiko konponbidea eman arte. Halaxe jakinarazi zion udalari, ebazpen baten bidez.

Hala ere, gure gomendioari erantzunez udalak eskuratu dizkigun agirietan ez da inolako berririk eman azaldutako arazoaren bilakaeraz. Horregatik, gomendioa ez onartutzat jo dugu.

DONOSTIAKO UDALAK NEURRIAK HARTU DITU ALDE ZAHARREKO ESTABLEZIMENDU BATZUEK BEREN FATXADETARAKO ESKATZEN DIREN ESTETIKA-BALDINTZAK BETE DITZATEN

“Parte Zaharrean Bizi Auzo Elkarte”k egindako kexa bat bideratu zuen Arartekoak. Kexa horretan azalduenez, Donostiako Udalak ez zuen esku hartzen hirigintza-araudia betearazteko, alde zaharreko lokal eta ostalaritza establezimendu askoren fatxadetan eguzki-oihalak, errotuluak, plakak eta beste elementu batzuk jartzeari dagokionez.

Elkarte hori aspaldixotik salatzen ari zen hautsi egiten zirela Donostiako Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Berezian fatxadetarako ezarri ziren estetika-baldintzak arautzen dituzten arauak.

Udalari informazioa eskatu ondoren, hark hirigintza-kontrolerako adostu ziren jardueren berri bidali zigun. Udalak erabaki zuen Donostiako alde zaharreko 125 lokal eta ostalaritza establezimenduri eguzki-oihalak ken ditzatela eskatzea, arau horiek eragiten baitiete.

Gainera, araudi bat egiteko asmoa du, zenbait elementu jarri ahal izateko, oso baldintza zehatzetan, kultura-ondarea babesteko araudiak eragindako erakinen fatxadetan.

Edonola ere, Arartekoak Donostiako Udalari gogorarazi dio hirigintza-diziplina arloko eskumenak baliatuz eta erabaki horrek eragindako guztientzako prozedura-bermeak jarritz, administrazio-espeditente hori izapidetzen jarraitu behar duela, harik eta fatxada horiek lehengoratu arte.



ARARTEKOAK EUSKO JAURLARITZARI GOMENDATU DIO BERRIZ AZTER DITZALA ARRISKU OBSTETRIKO HANDIAREKIN HAURDUN DAGOEN EMAKUME BATI PRESTAZIO BATZUK BUKATZEKO ETA ERREKLAMATZEKO EBAZPENAK

Emakume batek Arartekora jo zuen, izan ere, 9.000 euro baino gehiago erreklamatu zizkieten diru-sarreak bermatzeko errenta (DSBE) eta etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) laguntza ekonomikoak jaso zituelako, eta ez zegoen konforme jokaera harekin. Kexagilea etxe-langilea zen, bi etxebizitzatan lan egiten zuen eta haurdun zegoen. Haurdunaldiko diabetesa diagnostikatu ziotenean, haurdunaldiaren bilakaera gertutik aztertu behar izan zioten eta horrek bere laneko zereginak betetzea eragotzi zion. Horrela, 2012ko ekainean baja hartu zuen lan horietako batean, eta abuztuan, bestean.

Lanbidek, borondatezko bajaren berri izan zuenean, prestazioak amaitzea erabaki zuen eta urte hartan DSBE eta EPO gisa ordaindu zituen prestazioak erreklamatzeko prozedura hasi zuen. Kexagileak ez zuen amaitze-ebazpenaren kontrako errekurtsorik jarri, baina kontra egin zion prestazioak erreklamatzeko prozedurari. Egin zituen alegazioetan adierazi zuenez, arriskuko haurdunaldiak arazoak sortu zizkion.

Erakunde honen iritziz, alegazio haiek kontuan hartu behar ziren eta onartu egin behar zen behar bezala justifikatutako arrazoia zegoela lan haietako ez onartzeko. Horregatik, Arartekoak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu dio berriz azter ditzala DSBE eta EPO prestazioak bukatzeko eta erreklamatzeko ebazpenak, bada, erakunde honen ustez, behar bezala justifikatutako arrazoia egon zen kexagileak lan haietako bat ez onartzeko, arrisku obstetrikoko handiko haurdunaldian baitzegoen.





ARARTEKOAK DONOSTIAKO UDALARI ESKATU DIO NEURRIAK HAR DITZALA AIETEKO EREMU BATEAN TRAFIKOKO ARAU-HAUSTEA ERAGOZTEKO

Donostiako Aiete pasealekuko jabeen komunitate batek esku hartzeko eskatu zion Arartekoari 2015ean, izan ere, udalak ez omen zuen ezer egiten Galtzaraberi inguruan eta supermerkatu baten parean ibilgailuak bigarren ilaran aparkatzea eragozteko.

Kexaren arabera, salatutako arau-hausteez bidezirkulazioa oztopatzen zuten eta, gainera, eragozpen akustikoak sortzen zituzten. Zehazki, haien esanean, bigarren ilaran aparkatutako ibilgailuek ez zieten ateratzen uzten behar bezala aparkatutakoei, eta zirkulazioa eragozten zieten autobusei eta beste ibilgailu astun batzuei; horiek, pasatzerik ez zeukatenez, auto-ilara luzeak sortzen zituzten eta klaxona ozenki jotzen zuten, eta horrek guztiak eragozpenak sortzen zituen.

Jabeen elkarteak zioenez, Donostiako Udalak 2012. urteaz geroztik zekien salatutako egoeraren berri, udaletxean idazki bat aurkeztu baitzuten, konponbidea eskatzeko. Geroago, beste bi idazki egin zituzten, azkenekoa 2015ean.

Arartekoak udalari argibideak eskatu zizkion azaldutako gaien buruz eta arazoa konpontzeko aurreikusitako neurriez, halakorik aurreikusi bazuen. Erantzunik jaso ez zuenez gero, erakunde honek zenbait gestio informal egin zituen Alkatezarekin. Horren ondoren, Mugikortasun Sailak onartutako neurrien berri eman zigun. Hala ere, kexagileen esanean, arazoak bere horretan dirau eta ez zen inolako hobekuntzarik ikusi kexa bideratzen ari zen bitartean.

Horregatik, Arartekoak Donostiako Udalari gomendatu zion neurri egokiak har ditzala, luze gabe, kexan salatutako egoera hau da, bigarren ilaran aparkatzeko debekua eta zirkulazioa ez oztopatzeko betebeharrak ez betetzea eragozteko, eta neurri horien bilakaera azter dezala.

EUSKO JAURLARITZAK PROZEDURA BAT HASI DU OTSOA DESAGERTZEKO ZORIAN DAUDEN ESPEZIEEN EUSKAL KATALOGOAN SARTZEKO

Euskadiko Otso Taldeak Arartekoari azaldu zionez, otsoa (canis lupus) desagertzeaz dauden espezieen EAEko katalogoan sartzeko eskatu zion Eusko Jaurlaritzaren lehengo Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari, baina hark ez zion erantzun.

Otsoa katalogo horretan sartzeko ondorio nagusi bat ekarriko luke, hain zuzen ere, Euskadiko otsoen kopurua kudeatzeko plan bat onartu beharra. Kudeaketa-plan horien bidez, espezie jakin bat behar bezala iraunarazteko egoera lehengoratu eta mantentzen da; horretarako, zenbait neurri hartu behar izaten dira, dauden arriskuak kentzeko.

Elkarteari erantzun ez ziotenez gero, 2017ko azaroan, Arartekoak hauxe gomendatu zion Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari: ahalik eta lasterren ebatz zezala otsoa katalogo horretan sartzeko eskaera.

Erabaki hori hartzeko orduan, sail horrek kontuan hartu beharke lituzke, Arartekoaren ustez, Bernako Hitzarmenean eta Habitats Zuzentarauan espezie hori babesteko bildu zen araubidea eta horren ondoriozko ikuskapen eta kontrol betebeharrak, baita espezie horren egungo kontserbazio-egoera ere, bere banaketa naturalaren eremuan nahiz Euskal Autonomia Erkidegoan bertan.

Azkenean, sail horrek prozedura bat hastea erabaki du otsoa desagertzeaz dauden espezieen EAEko katalogoan sartzeko; horrela, onartu egin du Arartekoaren gomendioa.



ARARTEKOAK EUSKO JAURLARITZARI GOMENDATU DIO BERRAZTER DEZALA BIZIKIDETZA-UNITATEAK GURASO BAKARREKOTZAT JOTZEKO ERABILTZEN DUEN BARNE-IRIZPIDEA



Herritar batek Arartekora jo zuen, ez baitzegoen ados Etxebizitza Sailaren Bizkaiko lurralde-ordezkariek “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan inskribatutako espedienteari eman zion puntuazioarekin. Kexa-idazkian azaldu zuenez, alarguna da eta guraso bakarreko bizikidetza-unitatea osatzen du, bere ardurapeko adin nagusiko bi alabekin batera. Bi alaba horiek unibertitate-ikasketak egiten ari dira. Gainera, kexagileak dioenez, 9 urte daramatza Etxebiden izena emanda, baina ez diote etxebizitzarik esleitu.

Bere espedienteari buruzko informazioa eskatu ondoren, interesdunak egiaztatu zuen 10 puntu kendu zizkiotela, guraso bakarreko familia-unitaterik osatzen ez zuela iritzita. Izan ere, EAEn ez dago lege mailako araudirik, ez “guraso bakarreko familia” kontzeptua definitzen duenik, ezta ere bizikidetza-unitateko kideek guraso bakarreko familiatzat jo ditzaten edo halakotzat hartuta jarrai dezaten zer baldintza bete behar dituzten ezartzen duenik.

Legean definiziorik ez dagoenez gero, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak barne-irizpide bat ezartzea erabaki du,

bere jarduera-eremu zehatzean oro har erabiltzeko. Barne-irizpide hori ezarriz, gurasoak eta bere ardurapeko seme-alaba adingabeek osatutako familiari soilik ematen zaizkio 10 puntu.

Hala ere, Arartekoari ez zaio egokia iruditzen euskal herri-administrazioa osatzen duen sail edo organo bakoitzak bere irizpidea izatea guraso bakarreko familiatzat zer hartu behar den erabakitzeko orduan. Horrez gain, bere ustez, familia bat guraso bakarrekoa den ala ez erabakitzean, ez da kontuan hartu behar familia-unitateko seme-alaben adina bakarrik, baizik eta egiaztatu behar da seme-alabak mendekotasun ekonomikoa duten ala ez.

Horregatik, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari gomendatu dio berriz azter dezala kexagilearen espedienteari emandako puntuazioa, eta baldintzak betetzen baditu, eman diezazkiola 10 puntuak, etxebizitzaren premia berezia egiaztatuta baitago.

Era berean, eskatu dio berrazter dezala bizikidetza-unitateak guraso bakarrekotzat jotzeko erabiltzen duen barne-irizpidea.

OFIZIOZKO JARDUERAK



Herritarrek aurkeztutako kexak ikertzeaz gain, Arartekoak, **bere ekimenez**, hainbat gai aztertzen ditu, hain zuzen ere, euskal herri-administrazioen batek jardue- ra okerrak egin dituela edo zerbitzu berriak emateko aukera dagoela uste denari buruzko gaiak.

2018an hasitako ofiziozko jardueren artean, honako hau da aipatzekoa: **emakumeen aurkako indarkeriaren arloko Gasteizeko epaitegia** lekualdatzeak sortu litzakeen segurtasun-arazoei buruzko jardue- ra. Epaitegietan egindako erreforma dela-eta Justizi Auzitegiko langileen ordezkariak egindako adierazpen publikoen arabera, posiblea da genero-indarkeriaren biktimek eta erasotzaileek sarbide eta epaitegi ber- berak erabiltzeko beharra izatea. Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak adierazi zuen parte hartzeko prest zegoela biktimei ematen zaien arreta bermatzeko; horixe zen erreformaren xedea, hain zuzen, sailak na- barmendu zuenez.

Halaber, Arartekoak jarduera bati eman zion hasiera kexa bat jasotzean, zeinaren bidez **genero- indarkeriaren biktimei lehen arreta** emateko modua zalantzan jarri baitzen biktima horiek poliziaren bulegoetara joaten direnean delitu bat salatze- ko edo babesa eskatzeko. Zehazki, kexagileak azaldu zuen polizia-etxeren batean ez dela elkarrizketaren konfidentzialtasuna eta pribatutasuna bermatzen lehen arreta hori ematean.

Horrez gain, ofiziozko espediente bati eman ge- nion hasiera, **Osakidetzako EPE**ko espezialitate

batzuetan sortutako egoera aztertzeko xedez. Osa- suneko sailburuak parte hartzeko eskaintza egin zuen, baita ikerketa aurrera eraman zedin errazteko beharreko informazio guztia emateko prest zegoela adierazi ere. Hala, etorkizuneko EPEetan gardenta- suna eta inpartzialtasuna bermatzeko 12 gomendio eman zituen.



Mareak biotopo babestuaren erreserbako aldera -ale- gia, **Zumaiako flysch**-era- eramandako hondakin solido asko erakusten zituzten hainbat irudi zabaldu ondoren, Arartekoak ofiziozko jarduera bati eman zion hasiera, naturagune hori kudeatzeko eskumena duten administrazioek jarraitzen duten prozedura edo protokoloa ezagutze aldera, betiere mareak kostal- dera eramandako aldizkako plastiko-isuriak ekiditeko eta isuri horiek saihesteko.



Prestazio ekonomikoei dagokienez, informazioa eskatu genien hainbat udali, familia askok adierazi- tako arazo baten inguruan. Udal gizarte zerbitzuek jakinarazi zieten gizarte behar larrietarako laguntzak edo, bestela, udal prestazioak jasotzeko laguntzak emateko egin zituzten eskaerak baztertu egingo dire- la diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta/edo etxe- bitzarako prestazio osagarriaren onuradun izateko irizpideak betetzen badituzte; ez dira kontuan hartuko prestazio horiek eten edo azkendu izana, prestazioak eteteko edo azkentzeko iraupena, edo eskaera egin zenetik zenbatuta bi hilabete beranduago Lanbide- k erantzunik eman ez izana. Horren ondorioz, baliteke familia batzuek diru-sarrerarik ez izatea aldi batean, baita haien baztertze arriskuak gora egitea ere. Ho- rrenbestez, ostatuaren egonkortasuna arriskuan egongo litzateke, alokairu-errentak ordaintzeko zail- tasuna dela eta.

Arartekoak ofizioz jardun zuen honako honen berri izan zuenean, komunikabideetako hainbat berriren bitartez: hainbat **isurketa** egin zirela **Arakil ibaian**, Araia udalerrian (Asparrenako Udala).

Gomendio orokorra

DESGAITUENTZAKO APARKATZEKO TXARTELAREN TITULARREK ESKUBIDEA DUTE APARKAMENDU MUGATUKO GUNEETAN (TAO) APARKATZEKO, TXARTELARI BURUZKO ARAUDIAK EZARTZEN DITUEN BALDINTZETAN

Desgaituentzako aparkatzeko txartelaren zenbait titularrek Arartekoari azaldu ziotenez, aparkamendu mugatua (TAO) arautzen duten udal ordenantzak ez dira egokitu, oro har, egungo araudira. Besteak beste, arau horiek ibilgailua gune horietan behar beste denboraz uzteko eskubidea aitortzen diete.

Gainera, azaldu zutenaren arabera, TAOren zaindariak Estatuko eta autonomia erkidegoko araudirekin bat ez datozen udal ordenantzak ezartzen jarraitzen dute oraindik ere.


Kexagileek adierazi dute oro har desadostasuna dagoela TAOren udal-arautegien eta desgaituentzako aparkatzeko txartela arautzen duen araudi berriaren artean. Horrekin batera, TAOren zaindarien ez dute jarraibide argirik ezarri behar duten araudiari buruz, eta, gainera, udal erregulazio ugari daude. Horrek guztiak segurtasun-falta juridikoa eta ziurgabetasuna sortzen dizkie txartelaren titularrei, ez baitakite zer araubide ezartzen duen udalerrri bakoitzak, ezta ere udalerrri bakoitzean zer arau bete behar dituzten.

Alderdi eztabaidagarriei dagokienez, aparkatzeko txartela arautzen duen araudia Estatukoa eta autonomikoa gure erkidegoan nola ezartzen ari den jakiteko, Arartekoak laguntza eskatu zien hainbat udali eta Eudeli.

Jasotako informazioak egiaztatu egin du araudiak heterogeneoak direla, ordenantzak ez daudela egokituta desgaituentzako txartela arautzen duen oraingo araudira, eta nekez jakin daitekeela ziur zer araudi ezartzen den udalerrri bakoitzean, askotariko araudiak ezartzen direlako eta batere argiak ez direlako.

Beraz, Arartekoak haxe gomendatu die autonomia erkidegoko udalei: gehiago atzeratu gabe, desgaituentzako aparkatzeko txartela arautzen duen araudira egokitu ditzatela aparkamendu mugatuko sistemari buruzko beren ordenantzak, txartelaren titularrei beren ibilgailua aparkamendu mugatuko eremuetan behar beste denboraz aparkatzeko eskubidea aitortu diezaiela, eta udal erregulaziorik mesedegarriena ezar diezaiela.





EUSKAL HERRIA ENERGIA EREDU IRAUNKOR BATERA IGAROTZEA

Arartekoak trantsizio energetikoari buruzko gizarte hitzarmena sustatzea gomendatzen du. Hitzarmen horrek Euskadiko trantsizio energetikorantz abiarazitako bidean aurrera egiten lagundu beharko du. Halaber, bide emango du adostasunik handiena duten neurriak bizkortzeko (energia-aurrezpena eta -eraginkortasuna, energia berriztagarrien sustapena eta energia fosilen kontsumoaren eta berotegi-efektuko gasen isurien murrizketa, garraioan bereziki).

Mundu osoko gizartea eraldaketa energetiko sakonean murgilduta dago. Igarobide horiek une berezian jarri dira mahai gainean, hain zuzen, nazioarteko eremuan hartutako konpromiso eta hitzarmenak berotegi-gasen isuriak murrizteko, aurrezpen eta eraginkortasun energetikoaren kuotak ezartzeko eta energia berriztagarriko iturrietatik datorren energiaren kontsumoa sustatzeko zuzenduta daudenean.

Euskadik egoerak eskatzen duen bezala jokatu behar du gizartearen deskarbonizazioaren erronkan. Nazioarteko eta nazioz gaindiko konpromisoak aukera bihur daitezke Euskadi erreferente izan dadin, gizarte eta ekonomia deskarbonizatuaren eredu gisa, baita energiaren arloko ikerketan eta garapen teknologiko eta industrialean duen eginkizuna finka dezan ere.

2030erako Euskadiko Energia Estrategia eta 2050erako Klima-Aldaketaren Estrategia; horietatik dira Euskadik gaur egun dituen funtsezko bi oinarriak. Horiek benetan ezar daitezten, funtsezkoa da politika-, enpresa- eta gizarte-mailan adostasun handia lortzea, energia-sistema jasangarri bateko funtsezko printzipioen inguruan, baita horiek EAEn aplikatu behar diren moduari dagokionez ere.

Eredu iraunkorrako batera bideratutako trantsizio energetikoa egite aldera, hiru oinarri bete behar ditu energia-ereduak: segurua eta lehiakorra izan behar du, eta ingurumen-inpaktu ahalik eta txikiena eragin

behar du. Halaber, **ereduak bidezkoa izan behar du, baita gizartearen onarpena** izan ere. Gizarte honen erronketako bat hauxe da: planetan bizi diren pertsona guztien eta etortzeko dauden belaunaldien ongizatea bermatzea. Horretarako, biziraungo badugu, **herritarrek beren gain hartu beharko dute** eredu eta ohiturak aldatzeko **erantzukizuna**.

Arartekoaren egitekoetako bat: euskal botere publikoen kontrol instituzionala burutzea

84/2012 Gomendioa aipatu behar dugu txosten berezi honen aurrekari gisa. Horren bitartez, Arartekoak Eusko Jaurlaritzari eskatu zion Euskadiko Energia Estrategia berrikus zezala, Euskadin zeuden gas naturaleko (fracking) meategien esplorazioaren eta ustiapenaren ingurumen-ebaluzio egokia egiteko. 2013ko abenduan, Eusko Jaurlaritzara bertaratu zen erakunde hau, haize-energiaren inguruko adostasuna sustatzeko gizartearengan, erakundeengan eta herritarrengan. 2016an, Euskadiko energia-pobretasunari buruzko gomendio orokor bat egin zen, eta 2017an, Euskadiko energia-pobretasunari aurre egiteko neurri eta jardunbide egokiei buruz hausnartzeko eta eztabaidatzeko jardunaldi bat antolatu zen.

Txosten honen xedea aldaketa guztiak testuinguruan jartzea da, herritarrek EAEko energia-sistemaren

etorkizunari buruzko hausnarketarako abiapuntu-tzat har ditzaten.

Diagnostikoa:

- Nabarmendu beharra dago planetak **gizartearen deskarbonizazioaren erronkari** egin behar diola aurre, eta, horretarako, **adostasun handia behar dela**.
- **Euskadiko energia-sistemak**, energia-baliabideen erabileraren aldetik efizientea bada ere, gaur egun **energia fosilak erabiltzen ditu** nagusiki (%80-90, 2000-2014 urteen bitartean).

Sektoreka, aintzat hartu behar da, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) emandako datuei erreparatuta, hauexekizirela energiaren azken kontsumitzaile nagusiak 2016. urtean: garraio-sektorea (%40,2) eta industria (%39,1), eta, horien ondoren, etxebizitza-sektorea (%10,7) eta zerbitzuak (%8,6).

Kanpoarekiko **energia-mendekotasun maila altua** dauka oraindik Euskadik.

EEEko datu batzuen arabera, 2005etik 2015era bitartean, EAEko etxebizitza-sektorean %45 egin zuela gora energiaren fakturak (715 eurotik 1.037 eurora).

Euskadin txertatutako politika energetikoak eta klimatikoak hasiak dira emaitzak ematen: hobetu egin da intentsitate energetikoa, murriztu egin dira berotegi-efektuko gasak eta energia-kontsumoa eta isuriak banandu egin dira hazkunde ekonomikotik.

Berotegi-efektuko gasen isuriek beherako joerari eutsi diote, eta 1990. urteko isuriak baino %12 gutxiago izan ziren 2016. urtean.



Energia-kontsumoak eta garraio-sektorearen isuriek, ordea, gorantz jarraitzen dute, eta Euskadin energia berri-tagarren kontsumoak geldirik jarraitzen du.

Euskadiko gobernantza energetikoa eta klimatikoa hobetzeko gomendioak

- Trantsizio energetikoari buruzko gizarte hitzarmena sustatzea.
- Erabaki energetikoei eta klimatikoei buruzko **eztabaida-foroa sortzea**.
- **Gai hauen inguruko gizarte eztabaidarako oinarri batzuk ezartzea:** trantsizio energetikoa eta finantzaketa; euskal erakunde publikoek dituzten baliabide ekonomikoak eta antolakuntzari buruzkoak aztertzea eta ea baliabideok helburu energetiko eta klimatikoekin lotuta dauden; eta gizarte adostasuna lortzen saiatzea, energia berriztagarren erabilera bultzatzeari dagokionez.
- EAEn, **energiaren eta klimaren inguruko plan integratuak** egitea eta planok estrategiaren printzipioekin zein nazioarteko, Europako eta Espainiako plangintzarekin koordinatzea.
- **Energia-eskubideen katalogoa** eta euskal energia-prosumitzailearen estatutua egitea, eta kolektibo zaurgarrientzako neurriak hartzea.
- Euskadin **aurrezpena eta eraginkortasuna** sustatzeko ekintza-plana.
- Euskadin **energia berriztagarria** sustatzeko ekintza-plana.
- **Mugikortasun jasangarriko planak** bultzatzea. Ibilgailu elektrikoa sustatzea, kutsadura gutxiago sortzen duen garraibide pribatua baita.
- **Etxebizitza-sektorea:** gomendatzen da etxebizitzetako kontsumoaren monitorizazioa bermatzea, energia-auditoretzak sustatzea eta autoekoizpena eta eraikinetan sortutako energia elektrikoaren kontsumoa babestea.
- **Ingurumen-fiskalitatea:** Arartekoak gomendatzen du erreforma fiskal bat egitea, Euskadin karbono gutxiagoko eredu jasangarriago bateranzko trantsizio energetikoa egiteari lotutako helburuak betetze aldera.
- Finean, **txosten honen helburua da azpimarratzea gizarte hitzarmen bat egin behar dela**, aurrera egiteko Euskadiko trantsizio energetiko-rantz abiarazitako bidean, eta adostasunik handiena duten neurriak bizkortzen laguntzeko (energia-aurrezpena eta -eraginkortasuna ahalik eta gehien handitzea, Euskadin energia berriztagarriak sustatzea eta energia fosilen kontsumoaren eta berotegi-efektuko gasen isuriak murriztea Euskadin, garraioan bereziki).
- Horrez gain, **Arartekoak** Euskadin karbono gutxiagoko **eredu jasangarriago bateranzko trantsizio energetikoa egiteko konpromisoa** hartu du, herritarren eta etortzeko dauden belau-naldien ongizatea bermatze aldera.

OMBUDSMANAREN NAZIOARTEKO INSTITUTUAREN TOPAKETA

Ingurumen arloko gobernantza egokia: Ombuds erakundeen eginkizuna ingurumen-eskubideak babesteko orduan.

Ombudsmanaren Nazioarteko Institutuak (International Ombudsman Institute, IOI) topaketa bat egin zuen Vitoria-Gasteizen, Arartekoak babestuta, gonbidatzaile eta antolatzaile bait zen. Gai hau jorratuko zen bertan: *“Ingurumen arloko gobernantza egokia: Ombuds erakundeen eginkizuna ingurumen-eskubideak babesteko orduan”*.

IOI munduko erakundea 1978an sortu zen, mundu osoko 90 herrialdetik gorako 188 Ombuds erakunde baino gehiago elkarlanean aritzeko. Herriaren defentsa-erakundeak sustatu eta garatzea du helburu.

Naturako eta ingurumeneko baliabideak ondo kudeatzea oso garrantzitsua da garapen jasangarria lortzeko. Hala ere, zenbaitetan ez da nahikoa izaten Espainiako eta Europako legedia, ingurumen arloko akordio aldeaniztunak eta beste ingurumen-neurri batzuk gauzatzea, batez ere garapen eta trantsizio prozesuan dauden herrialdeetan.

Gero eta adostasun handiagoa dago gai honen gainean: **governantzak eragin handia du ingurumen arloko ekintzetan eta emaitzetan**. Zuzenbide Estatua, informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justizia berdintasunez jasotzeko eskubideak dira garapen jasangarria lortzeko oinarria.

Testuinguru horretan, lantegi honen bidez aztertu nahi zen Ombuds erakundeek nola indartu dezaketen ingurumen arloko legeria (akordio aldeaniztunak barne direla) eta beste neurri batzuk, ingurumen arloko gobernantza egokia sustatzuz.



Honatz atera dituzten **ondorioetako batzuk**:

- Aarhusko Hitzarmeneko eskubideei berezko izaera kentzeko arriskuaren aurrean, garrantzitsua da Ombudsmanek, erabakiak hartzeko prozesuak egiaztatzean, herri-administrazioei informazio argi eta egokia eman dezaten eskatzea, nahasketarik sortuko ez duena. Horrela, herritarrek modu eraginkorrean parte hartu ahal izango dute, azken erabakietan benetan eragin ahal izateko.
- Erakunde bakoitzaren tresnak erabiliz (ofiziozko jarduerak, txosten bereziak, foroak, eta abar) eztabaida piztu behar da gizartean eta erakundeen artean, energia jasangarrira igarotzeko bidean eta klima-aldaketaren kontrako borrokan azkarrago aurrera egiteko.
- Energia-trantsizio horrek barneratzailea izan behar du, herritarrek erdigunean jarri behar ditu eta pertsonarik ahulenak babestu, horiek ahaldunduz eta energiaren kudeaketan eraginkortasunez parte har dezaten bultzatuz.
- Ingurumena eraginkortasun handiagoz kontrolatzeko, Fiskaltza Nagusia eta herriaren defendatzaileak elkarlanean aritzeko aukera proposatu da.
- Biodibertsitatea babestu nahi bada, lege-esparrua zuzen ezarri behar da, baina gobernantza ez da soil-soilik legea ezartzea. Horrez gain, kontuan hartu behar da ingurumen arloko politikek berezkoa dutela gatazka.
- Naturaguneen eta espezie basatien kudeaketa-planak aukera ona dira interesdun guztiak ordezkatuta egongo diren parte-hartze prozesuak abiarazteko.





ARARTEKOAK ANTOLATUTAKO IKASTAROA: HAURRENGANAKO SEXU-ABUSUA

EHUren Uda Ikastaroen XXXVII. edizioan, Arartekoak honako izenburuko ikastaroa antolatu zuen Donostian: “Haurrenganako sexu-abusua: gizarte osoa interpelatzen duen errealitate konplexua”.

Ikasturtearen inaugurazioan, Manuel Lezertua arartekoak azaldu zuen kezkatuta dagoela “botere publikoak nahiz gizartea haurren kontrako sexu-abusuen errealitateari ematen ari gatzazkion erantzunagatik”.

Horri lotuta, adierazi zuen “ezinbestekoa dela botere publikoek zeharkako esku-hartzea burutzea; horretarako, nahitaezkoa da lidergoak haurra edo nerabea eskubideen jabe dela oinarri hartzea, eta ziurtatzea adingabearen interesa erabat errespetatuz jarduten dela, indarkeriaren aurkako babesba jasotzeko eskubidea bermatze aldera”.

Umeenganako sexu-abusuak mutikoaren edo neska toaren muga intimoak hausten ditu. Alderdi ugari ditu; horregatik, ezinbestekoa da administrazioko eragile eta organo ezberdinek esku hartzea, baita ere haur eta nerabeak hartzen dituzten erakunde publiko eta pribatuak edo zerbitzuak, horietan horrelako portararak antzeman baitaitezke.

Arartekoak antolatutako ikastaro honetan, hausnarketarako eta profesionalen eta sektoreen arteko truketarako gunea sustatzen ahalegindu ginen, sentsibilizazio, konpromiso eta interes komunaren bitartez, elkarri ezagupenak eta eskarmentua helarazi ahal izateko haur eta nerabeen kontrako sexu-indarkeriazko kasuak prebenitzen, antzematen eta horietan esku hartzen. Horrela, abiapuntu bat finkatu nahi da partekatutako estrategiak berreraikitzeke, haur eta nerabeenganako jardura egokiak eta tratu ona garatu ahal izateko.

Zehazkiago, ikastaro honen bitartez, gai hauetan lagundu nahi zen:

- Sexu-indarkeriazko egoeren ezaugarri nagusiak eta hori pairatu duten haur eta nerabeengan utz ditzakeen arrastoak ezagutzen.
- Hezkuntza afektibo-sexualarekin zerikusia duten alderdi babesleak ezagutzen eta bultzatzen.
- Umeenganako sexu-indarkeriaren adierazle batzuk identifikatzen.
- Horrelako egoeretan ebaluazio psikologiko eta auzitegiko ebaluazio egokia egiteko jarraibideez hausnartzen.
- Haurren oinarrizko eskubideak defendatzeko asmoz aurretiaz eratu den frogan berme nahikoak nola mantendu daitezkeen ezagutzen, haurrak bigarren mailako biktimizaziotik babesteko.
- Elkarri beharrezko ezagupenak adierazten, sexu-indarkeriazko kasuetan koordinazioa eta esku-hartzea hobetzeko.
- Lan terapeutikoa ezagutzen, horrelako egoerek izan ditzaketen eragina eta ondorioak ahalik eta gutxien izan daitezken.



OMBUDSMANAREN IBEROAMERIKAKO FEDERAZIOAREN XXIII. BILTZARRA



Etxebizitza duina izateko eskubidea

Arartekoaren ordezkari batzuk eraginkortasunez parte hartu zuten Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren XXIII. Biltzarrean, Andorran.

Topaketa horretan, gizakiaren bizitzarako funtsezkoa den gai bat aztertu zuten: etxebizitza duina izateko eskubidea; eskubide hori nazioarteko itunik garrantzitsuenetan jasota dago.

Arartekoaren ondokoak, Emakumeen Defentsa-erakundearen Sareak Europako Eskualdean duen koordinatzailea denez, hainbat bileratan parte hartu zuen, baita ere etxebizitza duina eskuratzeko orduan berdintasunez eta bereizkeriarik gabe jokatzeari buruzko mahai-inguru batean.

Manuel Lezertua arartekoak, bere aldetik, gai honetaz hitz egin zuen: "Etxebizitzarako eskubidea. Europako eta Amerikako ikuspegiak".

Bere hitzaldian nabarmendu zuen etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea ez dela hartu behar soil-soilik babesleku bat izateko eskubide bezala, baizik eta pertsonak berez dituzten gainontzeko eskubideen osagai bateratzaile gisa.

IBEROAMERIKAKO HERRIAREN DEFENDATZAILEEI LAGUNTZEKO ESKUALDEKO PROGRAMAREN NAZIOARTEKO IV. BILTZARRA

Madriren egin zen Iberoamerikako Herriaren Defendatzaileei Laguntzeko Eskualdeko Programaren IV. Biltzarra, eta bertan parte hartu zuten Manuel Lezertua arartekoa eta Julia Hernández bere ondokoa.

Topaketa horretan, Manuel Lezertua arartekoak mahai-inguru batean parte hartu zuen, gai honen gainean: "Ombudsmana eta ura eta ingurumen egokia izateko eskubideak".

Lezertuak gai horretaz Arartekoan jasotzen dituen kekek aipatu zituen: adibidez, bizilekuetan eragozpenak sortzen dituztela ostalaritza jardueretatik edo bidezazpiegituretatik datorren zaratak, usainek eta industri prozesuen ondoriozko aire-kutsadurak. Halakoetan, kekatzeko arrazoi nagusia izaten da administrazioak ez diela erantzuten hainbat arazori: eragozpenetatik hasi eta oso arriskutsuak izan daitezkeen jardueri; horietako batzuek osasun-arazo larriak eragin ditzakete.

Zergatik gertatzen dira halako disfuntzioak administrazioak bere kontrol-lanean esku hartzeko dituen mekanismoetan? Ingurumena kontrolatzeko plangintzarik ez dagoelako, erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzak hobetu behar direlako, ingurumen egokia izateko eskubidea ezarri eta betearazi behar delako, ingurumenaren kontrol-lanean poliziaren lana bultzatu behar delako, besteak beste.

Arartekoak ingurumena kontrolatzeko egiten dituen proposamenen eta iradokitzen dituen neurrien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Elkartzeko foro bat mantentzea, ingurumenaren kontrol-lanean erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko.
- Ingurumen arloko zuzenbidea ezartzen laguntzea.
- Erakunde guztiak Ingurumen arloko Fiskaltzarekin elkarlanean aritu daitezzen sustatzea.
- Poliziaren ingurumen arloko unitatea indartzea eta finkatzea.
- Herritarrek parte hartzeko tresna gehiago jartzea.



HERRIAREN DEFENDATZAILEEN KOORDINAZIORAKO XXXIII. JARDUNALDIAK

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak eta adingabeak artatzea

Manuel Lezertua arartekoak, erakundeko ordezkari batzuekin batera, **Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako XXXI. Jardunaldietan** parte hartu zuen, Alacanten. Gai hau eztabaidatu zuten bertan: “Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak eta adingabeak artatzea”.

Topaketa hori egin baino lehen, herriaren defentsa-erakundeek zenbait txosten prestatu zituzten, genero-indarkeriaren kontra legean ezarrita dauden babes osoko neurriak balioesteko. Erakunde bakoitzak azaldutako egoera gorabehera, defendatzaile guztiek hainbat ondorio atera zituzten elkarrekin.

Lehena, genero-indarkeriaren biktimak oso agerikoak direla, baina izengabeak eta ezezagunak. Egiaz, datu gutxi daude, biktimek gutxitan azaltzen baitiete arazo hori defentsa-erakundeei.

Bigarrena, gizarteratzeko, laneratzeko eta etxebizitza bat lortzeko neurriak ez direla eraginkorrak, aurrekontuetan behar baino diru-kopuru urriagoa izendatzen delako horretarako.

Eta, azkena, arazoak sortzen direla Estatuaren, autonomien eta toki erakundeen eskumenen ondorioz, izan ere, nahitaez hobetu behar dira erakundeen arteko lankidetzak, koordinazioa eta leialtasuna.

Jardunaldiak ateratako ondorioak ezagutaraziz amaitu ziren. Horien artean, hauxe nabarmendu daiteke:

herriaren defendatzaileek Estatuari eta autonomia erkidegoei eskatu diete berriz aztertu, eguneratu eta egokitu dezatela abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren indarreko testua, eta beharrezkoak diren legegintza-aldaketak bultzatzea ditzatela “genero-indarkeria” kontzeptua zabaltzeko, bere baitan har ditzan Istanbulgo Hitzarmenean jaso ziren emakumeen kontrako eta etxe barruko indarkeria mota guztiak.



HERRIAREN DEFENDATZAILEEN EUROPAKO SAREAREN BILTZARRA

Manuel Lezertua arartekoa Herriaren Defendatzaileen Europako Sarearen Biltzarrean parte hartu zuen Bruselan. Honelako gaiak aztertu zituzten topaketa horretan: EBren etorkizuna, herriaren defendatzaileek geroan izango dituzten erronkak eta EBko herritarren



mugaz haraindiko arazoak konpontzea. Lezertuak mugaz haraindiko arazoak konpontzeari buruzko saio batean esku hartu zuen, kasu zehatzei nola aurre egin azalduz, adibidez, LGTBen kasuari edo ijitoenari.

Arartekoak esan zuenez, Ombudsmenek *“botere publikoetan eta gizarte zibilean eragina izan behar dute, eta buru egin behar dute gizakien aniztasuna aldeztu eta errespetatu dadin eta gutxiengoak ekonomia-, gizarte, politika- eta kultura-bizitzako arlo guztietan berdintasunez eta duintasunez erabat gizartera daitezten eskatzeko orduan”*.

Edonola ere, nabarmendu zuen European gutxiengo berriak agertzen ari direla (erlijiozkoak, kulturazkoak) eta lehendik zeuden gutxiengo batzuen egoera berriaz aztertzeke programek ezin dietela erantzun gutxiengo berri horien beharrei.

Haur eta nerabeentzako bulegoa

2018. urtean, 729 kexa-espeditente izan ziren haurrak eta nerabeak berariaz aipatu zituztenak edo tartean izan zituztenak; Ararteko erakundearen aurkezten diren kexa guztien **%27,97 da**. Gaietako dagokienez, %41 haurrek bizitza-maila egokia izateko baldintza materialei dagokie, hots, diru-sarrerak bermatzeko sistemekin eta etxebizitzarekin loturiko gaiak dira; %38 hezkuntza-sistemako arazoei eta gainerako %21a, berriz, gizarte zerbitzuetako eremuei dagokie: familiei laguntzako politikak, osasun sistema (%4), justizia administrazioetako zerbitzuen jarduketak (%2), eskola-kirola (%1,5) eta beste esparru batzuk, baina oso kopuru txikietan.

Haurren Eskubideen Batzordearen neurri aplikagarri orokorrei dagokienez, esan behar da aurrerapenak izan direla legeriaren esparruan, zerbitzuak eta programak araupetzeko zenbait dekretu onetsita, baina egiteke dago oraindik haurrak babesteko euskal legeriaren eguneratzea.

Haurren Plana izateko behin eta berriz eginiko eskaerari emandako erantzuna 2018-2022ko Familiei Laguntzeko Erakundearteko IV. Planaren baitan gertatu da.

Printzipio orokorrei dagokienez eta, zehazki, haurren interes gorena denaz bezainbatean, Arartekoaren positibotzat jotzen ditu Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren ekimenean azaldu-tako argudioak, hots, arauak haurrengan izandako eraginari buruzko ebaluazioa Xedapen Orokorrek egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legean sartzeko eskatzea.

Gero eta gehiago ezagutzen, aipatzen eta eskatzen da haurrek **entzunak izateko duten eskubidea** eta, horren ondorioz, parte hartzeko guneak, egiturak eta erakundeak sortu dira. Kasu askotan, haurrentzako eta nerabeentzako tokiko planak sortzeaz gain, Haurren Kontseiluak eta antzeko eginkizunak dituzten organoak errealitate bihurtzen ari dira Euskadiko gero eta udalerrri gehiagotan. Nolanahi ere, ezin ahan-tzi dezakegu sortu berria den mugimendua dela eta ez dela eragozpen benetan parte hartzeko bide egonkorrago gehiago eskatzen jarraitzeko.

Diskriminaziorik ezaren printzipioari dagokionez, nabarmentzekoa da ijitoen familiako haurren bizitzan

oraindik diren zailtasun bereziak 2018. urtean, hain zuzen ere etxebizitzaren alokairuarekin lotuta.

Beren garapenerako bizitza-maila egokirako eskubidea dela-eta, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak Euskadin pobrezia mailak eta prekaritate ekonomikoa kontrolatzeko duen balio handia aitortzearekin batera, ezinbestekoa da ere gogoraztea adingabe asko dagoela oinarritzko beharrak betetzeko zailtasunak dituzten familietan.

Etxebizitzaren arloan, seme-alabak dituzten familiekin izandako esku-hartzeak gehienbat alokairu publikoko etxebizitzetan gehiegizko okupazioari eta alokairuak ez ordaintzeari eta horren ondoriozko utzarazpenei aurre egiteko dira.

Nolanahi ere, Familiei Laguntzeko Erakundearteko IV. Plana berriz ere albiste ontzat jotzen da, zeren eta apustu garbia ezartzen baitu haurren pobrezia lantzeko haurren desberdintasunaren, pobrezia belaunaldien artean transmititzearan eta haurrengan inbertitzearen paradigmatik gakoetatik.

Hezkuntzarako eskubideari dagokionez, ez dago beritasun aipagarriarik aurreko urteetan azaldu-takoaren aldetik, hain zuzen hauexekin lotutako arazoietan: ikasleak onartzea, hezkuntza behar bereziak, bekak eta ikasteko beste laguntzak batzuk, jantokiak eta eskola-garraioa.

Eutsi egiten zaio haur eta nerabe askori eragiten dioten beste **bi egoeraren jarraipena egiteari**: gizarte mailan behartsuak diren familietako ikasleak zenbait ikastetxetan metatzea eta hezkuntza sistemarekin harremanik izan ez duten edo hezkuntza sistema goiz utzi duten neska-mutilen lanbide pres-takuntza eskuratzeko zailtasunak.

Hezkuntzaren arloaz ari garela aipatu beharreko azken gaia **eskolako bizikidetz**a da, edo ikastetxeak toki seguruak eta aniztasuna errespetatzen duten tokiak izatea, non indarkeriazko jokabideek edo iraingarriek tokirik ez duten. Hori dela-eta zenbait kexa oraindik iristen ari badira ere, kexa batean ere ez da ondorioztatu administrazioaren jarduketa zuzena izan ez denik.

Udaleko gizarte zerbitzuek ematen duten arretarekin lotutako erreklamazioen zio nagusia, hots, oinarritzko arretarekin eta babesik gabeko egoera arinekin

eta ertainekin lotutakoa, zerbitzu horiek informazio eta orientazio eskariei erantzunik ez ematea da. Berriz ere esan behar da babesik gabeko egoeretan lehenbailehen esku hartu beharra dagoela eta gizarte-hezkontzako esku-hartzeak eginkizun garrantzitsua betetzen duela, bereziki gizarte egoera txarrak direnean eta gurasoek zailtasunak dituztenean.

Bigarren mailako arreta zerbitzuekin lotutako arreta gune nagusia, foru eskumenekoa, beste urte batez **familia erreferentziarik gabeko adingabe atzeritarrei** (MENAS) emandako arreta izan da. 2016. urteko amaieratik, nabarmen egin du gora Euskadira iritsi diren adingabeen kopuruak. Arartekoak gazte horien errealitatearen gertuko hurbilketa egin izan du.

Baina zailtasunak ez dagozkie soilik gizarte zerbitzuen sistemari berari, baizik eta honako hauei ere bai: administrazioko araupetze prozesuetako berandutzea, hezkuntza proposamenik eza, emantzipazio prozesuetarako nahikoa ez den erantzuna...

Gainerakoan, seme-alaben **babesgabetasun adierazpenarekiko** adostasuna agerrarazteko keak iristen dira orain ere, harrera-familia gisa egokitze balorazioa, foru zerbitzuek –tutoreek- harrerako adingabearen inguruan hartutako erabakiak edo Nazioarteko Adopzioarako egiaztaturiko zenbait erakunderen jarduna.

Premiazkoa da **genero-indarkeriaren biktimentzako** arreta hobetzeko izenpeturiko itunak eta erabakiak garatzeko bidean aurrera egitea, non dagoeneko inork ez duen zalantzan jartzen arrisku horretan daudela haurrak. Errealitatea ikusarazteko lorpen hori

haurren sexu-abusuetarako ere eska daiteke; izan ere, baztertu egiten da eta horren presentzia dramatiko ageri-agerikoa zaigu.

Familia babeslerako eskubideari dagokionez, Arartekoak berriz dio **familiei laguntzeko** ikuspegia txertatu behar dela politika publiko guztietan. Aurrerapenak izan badira ere, oraindik badira hobetu beharrekoak.

Adingabearen interes gorena eta beren garapenean bi gurasoak izateko eskubidea, bikotea haustuta ere, Arartekoaren proposamenaren oinarrian dago, hots, Euskadin gurasotasunaren balizko koordinazioa ezartzeko gogoeta sustatzeko proposamena. Izan ere, dagoeneko ezarrita eta martxan dago beste autonomia erkidego batzuetan.

Haurren osasunerako eskubidearen arloan Arartekoak duen kezka nagusia, oraindik ere, **haurren eta gazteen buruko osasunaren** arreta da. Haurrentzako eta Nerabeentzako Bulegoaren jarduna trinkoa izan da 2018. urtean arlo horretan, bai buruko gaitza duten pertsonen edota senideen gizarte erakundeekin izandako lankidetzaren harremanengatik, bai Haurren Defendatzaileen Sarearen (ENOC) lanaren xedea izan delako; horren barruan dago Bulegoa.

Bukatzeko, pedagogoen eta pediatrek ohartarazten dutenez, egungo haurrek jolas **defizita dute** (batez ere bat-bateko jolasa eta aire zabalekoa), baita aisialdi eta jolasteko jardueren aldetik ere. Jolasa funtsezkoa da osasuntsu haz daitezen, eta arlo horretan garrantzitsua dena ez da jostailuekin inguratuta egotea, baizik eta guneak, denbora eta haurrak izatea, haiekin jolasteko.



ARGITALPENAK ETA TXOSTENAK

- **Eusko Legebiltzarrarentzako txostena.** Arartekoak azken urtean egindako jarduera jaso du.



- **Hurrenganako sexu-abusua: gizarte osoa interpelatzen duen errealitate konplexua.** Donostian 2018ko uztailan egindako XXXVII. udako ikastaroko mintegiak eta materialak argitaratu ditu Arartekoak. Hurrenganako sexu-abusuak askotariko dimentsioak ditu. Hortaz, administrazioko eta erakunde publiko eta pribatu guztietako eragile eta organoek esku hartu behar dute, baita haur eta nerabeei zuzendutako zerbitzuek ere -horrelako jarrerak detektatu daitezkeen zerbitzuek, hain zuzen-. Arartekoak antolatutako ikastaroaren bitartez, hausnarketa eta truke profesional eta sektoreartekoa egiteko espazio bat sustatzeko saiakera egin zen. Espazio horretan, sentsibilizazioak, konpromisoak eta interes komunak ahalbidetu zuten ezagutzak eta esperientziak partekatu zitezten, haurren eta nerabeen kontrako sexu-indarkeriari lotutako kasuak prebenitzeko, detektatzeko eta kasu horietan esku hartzeko.



- **Euskal Herria energia-eredu iraunkor batera igarotzea.** Mundu osoko gizartea eraldaketa energetiko sakonean murgilduta dago. Txosten honen xedea aldaketa horiek guztiak testuinguruan jartzea da, herritarrek EAEko energia-sistemaren etorkizunari buruzko hausnarketarako abiapuntutzat har ditzaten. Hona hemen txostenaren helburuak: administrazioaren maila guztietan garatzen ari diren politikak ezagutaraztea; gaur egungo egoeraren diagnostikoa egitea; eta energiaren etorkizunari buruz hausnartzeko funtsezkoak diren elementuak planteatzea. Halaber, txostenaren bidez nabarmendu nahi da gizarte hitzarmen bat egin behar dela, Euskadiko trantsizio energetikorantz abiarazitako bidean aurrera egiteko, eta adostasunik handiena duten neurriak bizkortzen laguntzeko: energia-aurrezpena eta -eraginkortasuna ahalik eta gehien handitzea, Euskadin energia berriztagarriak sustatzea eta energia fosilen kontsumoaren eta berotegi-efektuko gasen isuriak murriztea, garaioan bereziki.



BESTELAKO JARDUERAK

- Arartekoaren ekimenez, Reinier van Zutphen eta Andreas Pottakis, Holandako eta Greziako herriaren defendatzaileak, hurrenez hurren, Euskadira joan ziren, eta, bertan, hainbat lan-saiotan parte hartu zuten, **errefuxiatuen integrazioa** aztertze aldera. Eusko Jauriaritzako, ACNUReko, Espainiako Herriaren Defendatzailearen, CEAR Euskadiko, ACCE-Meko eta MPDLko (bakearen, desarmatzearen eta askatasunaren aldeko mugimenduko) ordezkariekin bildu ziren. Eusko Legebiltzarreko lehendakari eta EAEko Lehendakari jaunak harrera egin zieten bi defendatzaileei.



- Giza Eskubideen Adierazpen** Unibertsalaren urteurrena abenduaren 10ean ospatu zenez, Arartekoak, Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak Gianluca Esposito gonbidatu zuten, alegia, Ustelkeriaren kontrako Estatuen Taldeko (GRECOko) idazkari nagusi exekutiboa, "Ustelkeria eta giza eskubideak" izenburupeko konferentzia egin zezan. GRECO Europako Kontseiluaren babespean sortutako talde bat da, hain zuzen, estatu kideei ustelkeriaren aurkako borrokan aplikatzen zaizkien neurrien jarraipena egiteko.



- Manuel Lezertuak Donostian egindako **Erizain Kudeatzaileen Jardunaldi Nazional**etan parte hartu zuen, "Pertsonarengan oinarritutako arreta: estrategiatik ebidentziara" lelopean. Lezertuak nabarmendu zuen gure osasun sistema publikoa indartzen eta sistema horretan inbertitzen jarraitu behar dugula, eta, horretarako, honako hau esan zuen: *"eredu honekin jasangarria eta iraunkorra izango den nazioarteko konpromisoa behar dugu, herritar guztiek osasun arreta publikoa jasotzeko aukera berak izan ditzaten"*.



- UPV/EHUko **Zuzenbidea eta Giza Genomaren Katedraren** 25. urteurrena ospatu zen, eta, egun horretan, kongresu bat egin zen Bilbon; mundu osoko hainbat adituk parte hartu zuten. Herriaren defendatzaile Manuel Lezertuak topaketa inauguratu zuen, baita Unescoko zuzendari nagusi ohi Federico Mayor Zaragozak eta Kolonbiako immunologo Manuel Elkin Patarroyok ere. Arartekoaren esku-hartzean, honako gai hauek landu ziren: "Oinarrizko eskubideak eta zientzia biomedikoak".
- Manuel Lezertuak **Arekuna foroak** antolatutako saio batean parte hartu zuen. Foro hori iritzietan liderrak diren hainbat pertsonak osatutako elkartea da, eta komunikazioaren arloko adituak biltzeko topalekua da. Foroaren xedea da komunikabiderik eta kazetaririk nagusienak biltzeko plataforma mantentzea. Arekuna foroa Espainiako iritzi fororik eragingarrienetako bat da.



- Arartekoak Bilbon egindako adikzioei buruzko jardunaldi batean parte hartu zuen. **Etorikintza fundazioak** antolatu zuen jardunaldia, hainbat iritzi alderatzeko eztabaida sozial bat sustatze aldera. "Kannabisaren trataera penala: ikuspuntu berriak" izenburupeko mahai-inguru bat zuzendu zuen Manuel Lezertuak. Honako hau adierazi zuen bere esku-hartzean: *nerabeek drogak kontsumitzeari buruzko politiketik "koherenteak izan behar dutela herritar guztien politika eta jarduerekin. Sustatu behar dute bizimodu osasuntsua, eta, horretarako, beren helburuak eta jarduerak kasuan kasuko baldintzetara egokitu behar dira, zenbait faktore kontuan hartuz, adibidez: adina, zaurgarritasuna edo bestelako faktore eragileak"*.



- **Haurren aldeko defentsa erakundeen Europako sarea** -Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoa sare horren parte da- Parisen bildu zen, eta, han, bi dokumentu interesgarri onartu zituen; hala, amaitutzat jo zuen haren lana. Dokumentu horietako batek sarea osatzen duten herrialdeen egoerari buruzko azterketa konparatiboa jaso zen. Bigarrena adierazpen instituzionala zen, **haur eta gazteen osasun mentalari** buruzkoa. Dokumentu horretan, haien herrialdeetako gobernuari, Europako Batzordeari eta Europako Kontseiluari emandako gomendio nagusiak daude nabarmenduta. Adierazpenean, osasun mailarik handiena eta gaitasunak tratatzeko zerbitzuez baliatzeko haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko neurri aproposak hartzeko dei orokorra egin da, eta, dei horren baitan, adierazpenak hainbat gomendio eman ditu osasun mentaletan atxikitako estigmaren kontra borrokatzeko.



- Arartekoak, Kazetarien Euskal Elkargoak eta Euskal Kazetarien Elkarteak honako jardunaldi hau antolatu zuten, Nagusiak eta Euskofederpen izeneko adinekoen elkartearen lankidetzarekin: **“Zahartzte aktiboaren irudia, estereotipoak eta gizarteari egiten dion ekarpena”**. Jardunaldi horren xedea zen gaur egun komunikabideetan islatzen diren eta islatu beharko lirakekeen adinekoei lotutako estereotipoen buruzko gogoeta egitea eta estereotipoen sentsibilizatzea. Horrez gain, adinekoen gizartearen egiten duten benetako ekarpena ere landu zen.

- Arartekoaren ordezkari batek Pristinan (Kosovon) antolatutako Hizkuntza Ordezkarien Nazioarteko Elkartearen nazioarteko konferentzian parte hartu zuen. Konferentzia horretan, Euskadiko hizkuntz eskubideen berri eman zuen, baita azken urtean erregistratutako aurrerakuntzen eta aurrerakuntza horiek egiteko Arartekoak duen esku hartzeko moduaren berri ere.



- Arartekoaren bulegoak askatasunik ez duten pertsonen eskubideak bermatzen dituzten erakundeetara zuzendutako **nazioarteko mintegi** batean parte hartu zuen, Kopenhagen. Ombudsmanaren Nazioarteko Erakundeak antolatu zuen topaketa hori, **torturari aurre hartzeko elkarrearekin** batera. 27 herrialdeko herriaren hainbat defentsa bulegoko espezialista bildu ziren topaketa horretan, parte-hartzaileek esperientziak trukatu zituzten, eraginkortasun handiagoa lortze aldera. Horretarako, askatasunik ez duten pertsonen eskubideak eta bermeak errespetatzeari buruz herri-aginteei emandako gomendioez baliatu ziren.



- Herriaren defendatzaile Manuel Lezertuak eta Haurrentzako Bulegoko arduradun Elena Ayarzak Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako **“Adingabe-koa eta genero-indarkeria”** izenburupeko jardunaldi batean parte hartu zuten. Arartekoak kezkatuta zegoela adierazi zuen. Izan ere, adingabeen kontrako indarkeriak izaera ikusezina du, bereziki familiari dagokion esparru pribatuan gertatzen bada. Lezertuak azpimarratu zuen garrantzitsua dela hobekuntzak egitea arazo hori prebenitu eta detektatzeari dagokionez, baita haur horiekin esku hartzeari dagokionez ere.



- Azaroaren 20an, Arartekoak, Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak haurren eta nerabeen eskubideei buruzko konbentzioaren urteurrena ospatu zuten elkarrekin, eta **“Treblinkara azken tren”** izeneko antzerki-ikuskizuna egin zen. Ikuskizun horren bidez, haurren bizitzari duintasuna emateko borroka aldarrikatzeko istorio bat kontatu zen. Obrak 1942. urteko abuztura garamatza, Janusz Korczak doktore eta pedagogoak zuzendutako Varsoviako umezurztegi batera. Han, 200 neska-mutil judu bizi dira, «haur-errepublika» moduko batean antolatuta, eta beren arauak dituzte. “Treblinkara azken tren” lanean, ikus-entzule batzuk arriskuan zeuden 200 ume horietako bat bezala sentitu ziren. Agertokia partekatuz, bertaratu zirenek zuzen-zuzenean bizi zituzten ohe-ohatzeetatik beren eguneroko bizi-modu berezia, barne-antolaketa, beldurrak eta pozak, eta nola eratu zuten beren Konstituzioa eta Zigor Kodea. Orobat, aurrez aurre ikusi zuten noiz esan zitzaienten umezurztegitik atera eta Treblinkako kontzentrazio-esparruan eraikitako gas-ganberetara eramango zituen tren hartu behar zutela. Han, naziek ordurako milaka lagun sarraskitu zituzten.



- Hemeretzigarren urtez jarraian, EITBk gizartearen eragin handia duen gai baten inguruan, alegia, birrikako minbiziaren inguruan herritarrak sentsibilizatzeko kanpaina jarri zuen martxan. Kanpainaren amaieran, **EITB Maratoia** izeneko jardunaldia ospatu zen. Jardunaldi horretan, ekarpenak egiteko deiak egiten dituzten herritarrei arreta ematen zaie, dei-zentro batean. Herriaren defendatzaile Manuel Lezertuak jardunaldi horretan parte hartu zuen modu aktiboan, telefonoa hartu baitzuen dei-zentro horretan. Kanpaina horren xedea izan zen herritarrak sentsibilizatzeko dohaintzak egin zitzaizten, arazoa konpontzen laguntze aldera. Halaber, ikerketak egiteko funtsak eskuratzea beste xede bat izan zen, birriketako minbiziaren jasan duten eta jasaten ari diren pertsonen bizi kalitatea hobetze aldera. Kanpaina solidario horri esker bildutako diru osoa ikerketak egiteko erabili zen.



- CEAR Euskadi elkarteak, SOS Arrazakeria Gipuzkoa elkartearen lankidetzarekin batera, honako gidaliburu hau aurkeztu zuen: **“Herritarrak diskurtso politiko xenofoboaren kontra. Suteen Aurkako Gida”**. Gidaliburuan, herritarrei zuzendutako hainbat tresna gomendatu dira, herritarrek gorroto xenofoboari dagokien hitzaldiei erantzute aldera. Arartekoaren ordezkariak gidaliburu horren aurkezpena joan ziren. Gidaliburuan 19 tresna gomendatu dira, hainbat alorri lotutakoak: juridikoari, instituzionalari, politikoari, komunikabideari eta herritarren elkartzeari buruzkoari.





- Balio eta giza eskubideen kultura sustatzeko eginkizuna baliatuz, Arartekoak hainbat jarduera egin ditu urtean zehar. 2018an, Arartekoaren ordezkaritza, ondoko Julia Hernándezek, besteak beste: gizarte erakundeek antolatutako hainbat jardueratan parte hartu du, modu aktiboan; konferentziak egin ditu hainbat forotan, giza eskubideei lotutako gaiari buruz; eta Arartekoaren helburuei hertsiki lotutako ekitaldi instituzionaletan parte hartu du.



- Arartekoaren ordezkaritza, ondoko Julia Hernández **Irungo eta Hondarribiko alardeen** ospakizunetara joan zen. Herritarren eskubideak sustatzeko eginkizuna baliatuz, erakunde honek honako hau gogorazteko betebeharra du: herri-aginteei funtsezko eginkizuna betetzen dutela gizonezkoak eta emakumezkoak benetan berdinak izan daitezzen zaitzen duten oztopoak desagerrarazteko orduan. Horrexegatik, aurrean ere, Arartekoak errepikatu du beharrezkoa dela pertsona orok euren eskubideak eta askatasunak erabili ahalko dituztela bermatzea.



- Aurreko urtean hasitako ekimenari ekinaz, Arartekoak, ARASKI AES Saskibaloia Kirol Elkartearekin batera, **Integrazioaren aldeko II. Topaketa** antolatu zuen. 120 emakume baino gehiagok jokalariek eta entrenatzaileek barne parte hartu zuten topaketan, baita Julia Hernándezek ere. Haren helburua zen aniztasuna aberastasun-iturri bihurtzea, eta, horretarako, emakumezkoen saskibaloia erabili zen transmititzailer gisa. ARASKI AES emakumeen elkarte da. 2010ean sortu zen, eta emakumeak saskibaloia esparruan prestatzeko eta sustatzeko proiektua garatzea du helburu. Proiektuaren xedea kirol jardueretatik haratago doan esparru batean daude kokatuta; proiektuak emakumeak hezteko xede, eta ez bakarrik kirol-ezaugarri fisikoei dagokienez, baizik eta garapen pertsonala sustatzeari dagokionez ere, betiere kirol hezkuntza integral baten ikuspuntutik. Ikuspuntu horren baitan, emakumezkoen ahalduzkoak, lidergoari eta erabakiak hartzeari, erreferenteak sortzeari eta kirolaren esparruan emakumezkoak eta gizonezkoak berdinak izateari lotutako balioak daude jasota.



- Arartekoaren ondoko Julia Hernándezek Panaman egindako **Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren (FIOren) XII. Kongresuan** parte hartu zuen. Kongresuaren aztergai eta eztabaidagaia Migrazioari buruzko Munduko Ituna izan zen. Errefuxiatu eta migratzaileei buruzko New Yorkeko adierazpena egin zenean hasi zen prozesu hori, 2016ko irailean, eta, bertan, Nazio Batuetako estatu kideek negoziazioak eta kontsultak egiteko konpromisoa hartu zuten, migrazio segurua, antolatua eta erregularra lortzeko munduko dokumentu bat onartze aldera. Julia Hernándezek FIOren **emakumeen aldeko defentsa erakundearen sareak** antolatutako bileran parte hartu zuen. Esperientziak trukatzeko espazioa da, hain zuzen, eta, bertan, Latinoamerikako emakume askori eragindako baztertzeko faktoreak desagerrarazteko proposamenak egiten dira.





ZUZENeko ARRETARAKO HITZORDUA ERRESERBATZEKO SISTEMA EZARTZEN DUGU GASTEIZeko BULEGOAN

Hitzordua **945 13 51 18** telefono-zenbakira deituz edo bulegoan bertan eska daiteke (Prado kalea, 9)

Arabako hiriburuko bulegora hurbiltzen diren herri-tarren demanda gero eta handiagoari erantzunez eta Zerbitzuen Zorroan adierazitako konpromisoari erantzute aldera, uztailean hitzordua erreserbatzeko sistema ezarri genuen, Gasteizeko bulegoan zuzeneko arreta jaso nahi duten pertsonentzat.

GASTEIZTXO PROGRAMARAKO LANKIDETZA

Arartekoak haurrei eta nerabeei dagokienez ezarrita dituen jarduketa-ildoetako bat honako hau da: haien eskubideak hedatzea eta **giza-eskubide guztiekiko errespetu-kultura** zabaltzea gazteen artean. Horregatik, Gasteizko Udalaren Hezkuntza Sailarekin lankidetzan jarraitzen dugu, **Gasteiztxo Albistegia** egiteko orduan. Hainbat ikastetxetako ikasleek Arartekoaren egoitza bisitatzen dute eta erakundearen jarduerari buruzko datu eta informazioak biltzen dituzte, ondoren irrati- zein telebista-programa bat edo aldizkari bat prestatzeko. EAEko institutu, lanbide-irakaskuntzako ikastetxe eta beste ikastetxe batzuetako ikasle-taldeek ere bisitatzen gaituzte.



GIZARTE ERAGILEEKIKO HARREMANA

Gobernuz kanpoko erakundeak eta antolatutako gizarte zibila, Arartekoaren ustez, euskal gizartearen arazoan begiak eta belarriak dira. Haien informazioari esker, ofiziozko jarduerak hasten ditu eta politika publikoen ebaluazio egiazkoagoa egiten du Arartekoak. Horrexegatik, Arartekoak erakunde horiek eta boluntarioek konpromisoz eta gogoz egindako lanaren balio handia nabarmendu du beti.

2018an, Arartekoak harreman iraunkorra izan du eragile sozialekin, bereziki egoera txarragoan dauden pertsonen laguntzeko eta askotariko arazo sozialak konpontzeko ardura duten elkarte, erakunde eta taldeekin, besteak beste: giza eskubideak defendatzeko ardura duten taldeekin, baita pertsona atzeritarrei, askatasunik ez dutenei, migrazio-arazoak dituztenei, etxerik ez dutenei, eta abarri laguntzeko taldeekin ere.

Azken urteotako esperientziak erakutsi digunez, elkarrekin eta kolektibok zeregin giltzarria izan dezakete gure gizartearen baztertutako sektoreen edo bereziki zaugarrien eta Arartekoa bezalako erakundearen arteko bitartekotzan; izan ere, beren eskubideen gaineko eta gatazkak konpontzeko bideen gaineko kontzientzia handiagoa dute haiei esker.



Zure eskubideak defendatu beharra daukazu?

Arartekora jo dezakezu

- Euskal administrazio publikoak zurekin gehiegikeriaz, legez kanpo, nahikeriaz, bereizkeriaz, oker edo zabarkeriaz jokatu duen ikertzeko.
- Udalak, Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak oker jokatu badu, zure arazoa konpon dezan.
- Guztion onerako hobekuntzak gomenda ditzan.

Zer da Arartekoa?

- Euskadiko Herri Defendatzailea da.
- Erakunde independentea da.
- Dohain eskaintzen den zerbitzua.

Zer egiten du Arartekoak?

- Pertsonak babestu euskal administrazio publikoen kontra.
- Herritarren eta administrazioaren arteko bitartekari izan.
- Legez kontrako egoerak galerazteko begiratu eta lan egin.
- Konponbideak proposatu eta legeak aldatzera bultzatu.
- Eusko Legebiltzarrari bere lanaren berri eman.

Noiz jo Arartekora?

- Administrazio batekin edo haren menpeko zerbitzu publiko batekin arazoren bat duzunean.
- Zerikusirik duen administrazioaren aurrean erreklamatu ondoren, erantzunik edo konponbiderik lortu ez duzunean.
- Momentu horretatik hasita, urtebeteko epearen barruan.

Noiz ez jo Arartekora?

- Pertsona partikularren arteko auzia denean.
- Gaia auzitara eraman denean.

Nola egin kexak?

- Norberaren datuak (izen abizenak, helbidea eta telefono zenbakia), agiri baliagarrien kopiak eta, ahal denean, kexaren arrazoia azaltzen duen idaztia emanez.
- Arartekoari zuzendutako gutunaren bidez (**Prado, 9 - 01005 Vitoria-Gasteiz**).
- Internet bidez: **www.ararteko.eus**
- Norbera hiru bulegoetako batera joanez.



Nora joan?

Harrera zuzeneko bulegoak

Arabari

Prado, 9 • 01005 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 13 51 18 • Faxa: 945 13 51 02

Bizkaian

Albia eraikina. San Vicente, 8 - 11. solairua
48001 Bilbao
Tel.: 944 23 44 09

Gipuzkoan

Arrasate, 19 - 1.
20005 Donostia / San Sebastián
Tel.: 943 42 08 88

Dei iezaguzu argibide gehiago behar baduzu

